

Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2020/2021	IRAKASLEA	Marisa Martinikorena
MAILA	DBH 4	ARLOA	Matematika Aplikatuak

HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa	<ol style="list-style-type: none">1. Zenbaki errealak.2. Proporzionaltasuna eta ehunekoak.3. Adierazpen aljebraikoak.
2. ebaluazioa	<ol style="list-style-type: none">4. Ekuazioak eta ekuazio sistemak.5. Estatistika.6. Funtzioak. Ezaugarriak.
3. ebaluazioa	<ol style="list-style-type: none">7. Oinarrizko funtzioak.8. Geometria.9. Trigonometria.10. Probabilitatea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK


Ebaluazio bakoitzean lortuko den kalifikazioa modu honetan kalkulatu da.

- Azterketak eta Lan Bereziak %70
- Lan pertsonal eta taldekoak %15
- Jarrerak %15.

Azterketa bakoitzean gutxienez 4 atara behar da batzbestekoa egin ahal izateko.

Jarrerako atalean gutxienez 5 bat izan behar da batzbestekoa egin ahal izateko.

Akats ortografikoak 0,1ekin penalizatuak izango dira azterketetan gehienez puntu 1 galduz. Akats ortografiko hauen inguruko zerrenda bat emango zaie ikasturte hasieran.



Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

BERRESKURAPEN SISTEMA

Ikasturteko erreperaketak:

- Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, gainditu ez diren edukiak erreperatzeko, erreperaso ariketak eta ekintzak proposatuko dira erreperaketako kontrola egin aurretik.
- Azterketen batazbestekoa egin ezin denean, 5era iritsi ez diren atalak berreskuratu beharko dira.
- Berreskurapen kontroleko egunerako lanen bat entregatzea eskatzen bada, gehienez puntu bateko balioa izango du, kontroleko notari gehituko zaiona, beti ere kontrolean gutxienez 4 atera badu. Lanik aurkeztu behar ez denean, berreskurapen kontrolean 5 atera behar da gutxienez gainditzeko.
- 1. eta 2. ebaluazioek beraien berreskurapena izango dute ebaluazio bakoitzaren ondoren. 3. ebaluazioko berreskurapena ohiko deialdian egingo da.
- 1. eta 2. ebaluazioen berreskurapena gainditzen ez bada, ebaluazio osoa ekaineko ohiko deialdian berreskuratu beharko da. 3. ebaluazioko berreskurapenean gainditu gabeko atalak erreperatu beharko dira ohiko deialdian. Suspenditutako ebaluazio bakoitzarentzat azterketa bat egongo da eta ohiko deialdian gainditzeko, ebaluazio bakoitzean 5 lortu behar da gutxienez.
- Ohiko deialdian ebaluazioren bat berreskuratzen ez bada, ez-ohiko deialdian ebaluazio osoa berreskuratu beharko da, gutxienez 5 lortuz.

Aurreko ikasturteko ez-gainditua:

- DBH3ko matematika gainditua ez izanez gero, arloa bi zatitan banatuko da eta kurtsoan zehar bi data finkatuko dira zati bakoitzaren azterketa egiteko. Aldez aurretik, erreperaso ariketak banatuko dira azterketarekin batera aurkeztuz gero puntu bat balioko dutenak, beti ere, kontrolean gutxienez 4 ateraz gero. Zatiren bat gainditu ezean, ohiko deialdian zati hori berreskuratu beharko da, eta honetan ere gainditzen ez bada, ez-ohiko deialdian.

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna

- Erabiliko den testu-liburua Anaya-Haritza argitaletxekoa izango da. Honetaz gain, fotokopiak edo material digitalizatua erabiliko da.
- Ikasleek beraien kalkulagailu zientifikoa izan beharko dute klasean adierazten zaien momentuetan erabiltzeko. Gomendatzen ditugun modeloak Casio fx-82SPX II eta Casio fx-991SPX II dira baina beste modeloek ere balio dute.
- Komenigarria denean kontrol idatziak egingo dira, baina horretaz gain etxerako lanak eta klaseko lanak proposatuko dira, bai banaka bai taldeka ebazteko.
- Azterketa bakoitza baino lehen erreperaso/errefortzu ariketak proposatuko dira bakoitzaren behararen arabera.
- Azterketetan penalizatuak izango diren akats ortografikoen berri azterketa baino lehen jakingo dute.

Sinadura
Marisa Martinikorena
Larraintzarren 2020ko Urriaren 5ean